



07 OTSAILA

Osteguna

01

Ostirala

02

Larunbata

03

Igandea

04

Astelehena

05

Asteartea

06

Asteazkena

07

Osteguna

08

Ostirala

09

Larunbata

10

Igandea

11

Astelehena

12

Asteartea

13

Asteazkena

14

Asteazkena

28

Asteartea

27

Astelehena

26

Igandea

25

Larunbata

24

Ostirala

23

Osteguna

22

Asteazkena

21

Asteartea

20

Astelehena

19

Igandea

18

Larunbata

17

Ostirala

16

Osteguna

15

200 GAZTEK HARTU ZUTEN PARTE HPS-K ANTOLATUTAKO "KIROL CAMPUSAK EUSKARAZ" EGITASMOAN

HPS: "Gazteek euskara erabiltzea nahi badugu, euren esparrura ekarri beharko dugu eta euren gustuko ekintzetara egokitu"

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako "Kirol campusak euskaraz" egitasmoari esker, 8 eta 11 urte bitarteko 200 bat umek hainbat kirolari profesional ezagunekin lehiatzeko aukera izan zuten abenduaren 26tik 27ra. Araban Taukoekin jokatu zuten, Gasteizen; Bizkaian Euskaltel Euskadiko txirrindulariekin, Derion; eta Gipuzkoan Bidasoa Eskubaloitako taldeko jokalariekin, Irunen.

Gazteek kirolaz eta aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukera ematea zuen HPSk helburu, eta, horretarako, era askotako ekintzak antolatu ziren: kirolaren gaineko teoria (arabideak, bide-heziketa, elikadura, kirol-kazetaritza...), kirolean jardutea, alderdi praktikoa, aisialdiko jolas-joko-osterak, eta abar.

Guztira, hiru campus osatu ziren, hirurak aldi berean, lurralde bakoitzeko erreferentziazko kirol-talde baten eskutik. Campusotan gazteek talde-kirol bakoitzeko kirolari profesionalekin harremana izateko eta egun biotan haien bizimodua egiteko aukera izan zuten. Hiru lurraldeetan antzeko egitaraua egin zen, betiere kirol bakoitzera egokituta, egunean hogeita lau orduz entrena-tzaile eta begirale euskaldunen gidaritzapean, kiroldegian nahiz aterpetxean.

Arabian, Tau Cerámica Baskonia taldearekin batera gazteek saskibaloia ekin zioten Gasteizen. Europa Gizarte Etxean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 85 gazte elkartu ziren, erdiak neskek eta erdiak mutilak, eta, profesionalen modura, goiz eta arratsaldean aritu ziren saskibaloia inguruko ekintzetan murgilduta. Lehenengo egunean, arratsaldeko saioa amaituta, Buesa Arena pabiloia barrutik ikusi eta Tau Cerámica taldearen entrenamendua bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. Bigarren arratsaldean, berriz, Luis Scola jokalaria hurbildu zen eta haiekin aritu zen kantsan.

Bizkaian, berriz, Euskaltel-Euskadi taldeari esker txirrindularitzan jardun zuten. Berrogeita hamalau neska-mutil elkartu ziren Derion, bizkaitarrak denak. Hogeita sei neskek eta hogeita zortzi mutilek hartu zuten parte campus horretan. Bizikleta gainean ipini aurretik profesionalen aholkuak arretaz entzun zituzten, bai txirrindularienak, baita mekanikarienak ere: bizikleta nola zaindu, bizikleta gainean nola jokatu, taldean nola ibili, zenbait egunetako lasterketetarako nola prestatu... Bide-hezkuntzari garrantzi handia eman zitzaion. Irteera pare bat ere egin zuten gazteek: lehenengo ibilbidea Parke Teknologikoan zehar egin zuten, gazteentzat gune segurua eta bide eroso; bigarrena, berriz, mendian barrena, gazteek askoz ere nekagarriagoa gertatu zitzaiona. González de Galdeano anaiek, esaterako, ez zuten campusera huts egin nahi izan eta bertan izan ziren Euskaltel-Euskadi taldeko hainbat txirrindulari ere: Iñaki Isasi, Beñat Albizuri, Andoni Lafuente, Unai Etxebarria eta Unai Urbarri.



IÑIGO PEREÑA

Bidasoa klubeko Kirol zuzendaria

Nola baloratzen duzu Kirol Campusaren emaitza?

Oso esperientzia positiboa izan da. Hasieran, datak beldurra eman zidan; izan ere, campusak eskolako oporrek bat zetozen. Parte-hartzea, ordea, handia izan da, eta haur asko jarraitzeko gogoarekin geratu dira.

Zein adinetakoak ziren umeak?

8 eta 11 urte artean finkatu genuen. Adin horretan asko estimatzen dute pare bat egun gureak bezalako kirolariarekin igarotzea. Asko eskubaloitako zaleak ziren, eta kirola ezagutzen zuten. Beste batzuen idoloak, berriz, gure kirolarien artean zeuden, eta beste batzuek ez zuten araudia bera ere ezagutzen. Eskubaloiarekin era askotako harremanak dauzkaten haurrak etorri zaizkigu. Batzuek eskolan praktikatu dute kirol hau, eta beste batzuentzat lehenengo aldia zen. Baina proiektuan garrantzia zuena ez zen golak norik sartzen zituen, baizik eta haurrei eta kirolariari euskararekin eta aisiarekin gozatzeko egonaldi atsegina eskaintzea.

Euskara eta kirola... eta jokalaria asko atzerritarrak

Bai, kontuan izanda gure jokalaria asko atzerritarrak direla, euskararen inguruan era guztietako pasadizoak izan ditugu. Baina azkenean jokalariek eta umeek ederki ulertu diote elkarri.

"Kirol campusak euskaraz" oso proiektu polita iruditzen zait. Denok oso ondo pasatu dugu, bai guk bai haurrek. Eta kirola euskararekin uztartzeko egindako saiakera oro ongi eginda dago.



Xabat Agirre. Donostia



Sekula pentsatu al zenuen eliteko kirolari profesional ezagun hauekin batera aritzea?

Telebistan ikusten nituen eta ez nuen inoiz pentsatu beraiekin egongo nintzenik... Gehien gustatzen zaidana Stankovic da eta gaur berarekin egon naiz jolasten. Lagunei kontatu diet eta hurrengo baterako apuntatuko direla esan didate. Joan den astean, gizon bat etorri zen nire eskolara eta esan zigun ea gustatuko litzaigukeen Bidasoako jokalariekin jolastea eta ni eta nire beste hiru lagun berehala apuntatu ginen.

Eta, azkenik, Gipuzkoan, Bidasoa taldearen bitartez eskubaloia landu zuten Irunen. Artalekun 76 parte-hartzaile izan ziren, tartean 28 neska. Bertaratutako guztiak Erreterria eta Irun aldekoak ziren. Gaztetxoek lehenengo egunean punta-puntako jokalarien bisita izan zuten: Jon Belaustegi eta Aginagalde anaiak, Gurutz eta Julen. Euren eskarmentuaren berri eman zieten neska-mutilei, kirolak eta euskarak nola eragin dieten euren bizitzan, hain zuzen ere. Gainera, Asobal ligako epaileen eskutik kirolaren gaineko arautegiaren berri ere izan zuten. Hainbat kirol kazetariri —telebista, irrati zein egunkarietakoei— nahi beste galdera egin ahal izan zizkieten, euren lanaren inguruan.

01 AISIALDIA ETA EUSKARA BATERA GOZATZEKO AUKERA


Egitasmo honen xedea gaztetxoek eguneroko bizimoduko edozein ekintzatan euskararen erabilera txertatzeko aukera izatea da, gaur egun eskolan ikasita badakite ere, askok ez baitute inguruan girorik izaten erabiltzeko. Gazteek euskara erabiltzea nahi bada, euren esparrura ekarri beharko da eta euren gustuko ekintzetara egokitu.

Gizarte arlo guztietan euskararen erabilera sustatuko bada, arreta berezia jarri behar zaio gazteen esparruari, bai eskolan eta bai eskolaz kanpo ere, aisialdian, euren arteko harremanetan, egoera informaletan euskara normaltasunez erabil dezaten lortzeko. Horretarako, erreferentziak eman behar zaizkie eta erabiltzeko aukera ugari eskaini, ohitu daitezten.

Hori kontuan hartuta, aisialdiari lotuta, eta zehatzago kirolari lotuta, ekimen berri hau sustatu eta bultzatu dute, gaztetxoei kirola, aisialdia eta euskara batera gozatzeko aukera emateko helburuarekin, euren gustuko ekintzen eskaintza egin, eta hori euskaraz egin ahal izatea bideratzeko.

02 ELKARLANEAN INDARRAK METATZEN

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Tau Cerámica Baskonia, Euskaltel-Euskadi eta Bidasoa kirol taldeen kolaborazioa izan zuen egitasmoaren antolaketa. Kirol talde hauen inplikazioa oso da onuragarria, euskararekin hartutako konpromisoa gizarte osoarentzat ereduagarria delako. Helburua gazteei kirolaz euskara hutsean gozatzeko aukera eskaintzea izanik, elkarlanean jardutea indarrak metatzea da eta, horrenbestez, emaitza hobekak lortzeko abagune paregabea.



AUPA, ETXEBESTE!,

HPS-REN LAGUNTZARI ESKER, IKUSMEN URRIKOEK JARRAITZEKO PRESTATUA

2005ean estreinatu zen *Aupa Etxebeste!* filma, mende honetan euskaraz egin den lehenengoa, DVD formatuan kaleratu berri da, bere ibilbide komertziala egin ostean.

Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailak Telmo Eñal eta Asier Altuna zuzendarien lan honen DVDko argitalpenari finantzazioa ematea erabaki du. Laguntza honi esker, argitaratu den edizioari audiodeskripzioaren teknika erantsi diote, eta, hala, ikusmen urritasuna duten pertsonak filmaren nondik norakoak jarraitu ahal izango dituzte. Izan ere, teknika honen bidez, filmen edo telesailen soinu bandaren isiluneetan grabatutako hainbat deskripzio egiten da: eszenak, pertsonaien mugimendua, ekintzak, paisaia aldaketak eta irudiak zehazten dira kontakizunean.

Telmo Eñal eta Asier Altunaren lehen film luze honetan familia drama eta komedia nahasten dira. Etxebestetarrak ditu protagonista itxurakeriari buruzko komedia beltz honek. Komedia moduan landurik, ordea, gure gizartearen miseriak, gezurrak eta egiak kontaktzen ditu. Pertsonaiek dituzten konplexuak, gezurretan aritzeko erabiltzen dituzten tresnak, euren baloreak, jendearen aurrean egiten dituzten itxurak eta beste azaltzen dira film luze honetan modu bikainean karrikatura egini.

Filma Bergara, Pasai San Pedro, Tolosa eta Zumaia herrietan grabatu zuten eta aktore nagusiak Ramon Agirre, Elenea Irueta, Pako Sagarazazu eta Iban Garate dira.





MUNDUKO LITERATURARA ETA, LITERATURAREN BIDEZ, MUNDURA, LEIHOAK ZABALTZEN JARRAITZEN DU LITERATURA UNIBERTSALA BILDUMAK

Literaturako Nobel saria jasotako bi idazleren lanak itzuli dituzte Ibon Uribarrik eta Patxi Zubizarretak *Literatura Unibertsala* bildumarako

Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* eta *Jakintzaren arbola* eleberriak ziren, orain arte, *Literatura Unibertsala* izeneko liburu-bildumaren barruan itzulitako azken lanak. 2006ko azaroan aurkeztu ziren hauek biak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen (EIZIE) arteko hitzarmenari esker, eta 2007an lankidetzaz hori ez da eten. Munduko literaturara eta, literaturaren bidez, mundura, leihoak zabaltzen jarraitzen du *Literatura Unibertsala* bildumak. Urte berriarekin batera, literaturaren historiako beste bi obra esanguratsu euskaraz irakurtzeko aukera zabaldu digu. Betiko legez, itzulpen txukun bezain zainduetan, Eusko Jaurlaritzak eta EIZIrekiko akordioari esker Yasunari Kawabataren *Loti ederrak* (124. zk.) eta Nagib Mahfuzen *Mirarien kalezuloa* (121. zk.) euskaraz izango ditugu.

Oraingo honetan Ibon Uribarri eta Patxi Zubizarreta izan dira, hurrenez hurren, literatura lan hauek itzuli dituztenak.


01 BI NOBEL SARI

Yasunari Kawabata japoniarra (Osaka, 1899-1972) Neosentsualisten literatura taldeko kide izan zen (Shinkankaku-ha); talde horrekin argitaratu zuen *Bungei-jidai* aldizkariaren (*Literatur artearen garaia*) lehenabiziko alea. Bere literatur heldutasuna 1925. urtean argitaratutako eleberrian nabarmentzen da, *Nire hamaseigarren urteurreneko eguneroko intimoa* eleberrian hain justu. Heldutasun horretan ahots propioa lortu du poliki-poliki, xehetasunak gogoko ditu eta linealtasun gutxiakoa da. Bakardadea, sexualitatea eta giza arima behin eta berriz errepikatzen dira bere literaturan. 1968. urtean Nobel saria irabazi zuen; jasotzerakoan, *Japonia ederraz, bere ni (Utsukushii Nihon no watashi)* hitzaldia eman zuen. Hiru urte geroago, oso gaixorik, gasa arnastuta bere buruaz beste egin zuen.



Nagib Mahfuz idazle egiptoarra 1911ko abenduaren 11n jaio zen Kairon. Egile oparoa izan zen, 34 eleberrri, 350 istorio labur baino gehiago, dozenaka pelikula, gidoi eta 5 antzezlan idatzi zituen. 1988an jaso zuen Literaturako Nobel saria, horrelakorik lortzen zuen lehenengo arabierazko idazle bihurtuz. 1956 eta 1957 artean "Kairoko trilogia" (*Jauregi paseoa*, *Desiraren jauregia* eta *Azukrearen kalea*) burutu zuen, bere hiriaren gaur egungo ikuspegia islatuz. Mahfuzen lanik ezagunena *Mirarien kalezuloa* hau da, 1994an zinematatu egin zutena. Zoritzarrez, beste liburu batek ere oihartzun handia lortu zuen, baina ez irizpide literarioengatik: *Auzoko seme-alabak* (1959). Biraoaz akusatuta, haren aurkako "fatwa" aldarrikatu zuten agintari islamiar batzuek. 1994an idazlearen kontra atentatu zuten, 82 urte zituela, eta larriki zauritu zuten. Bizitzaren azken urteetan, beste pertsona batek idazten zituen berak sortutako artikulak. 2006ko abuztuaren 30ean hil zen Kairon.

Nagib Mahfuzen lan hau Patxi Zubizarretak zergatik aukeratu zuen azaltzerakoan, idazle ordiziarrek zera azpimarratu zuen: "mendebaldeko literatura oso irrazionala da; ekialdekoak, berriz, beste kolore bat du, beste sentsualitate bat, beste musikalitate bat; eta hau dena oso aberasgarria da gure literaturarentzat". *Mirarien kalezuloa* Toledoko itzulpen eskolako judu batek ekarri zuen arabieratik gaztelaniara aurreneko aldiz ahoz eta, ondoren, kristau batek gaztelaniatik latinera; "Itzulpen hauek elkarbizitzaren ondorioak dira, eta hori dugu faltan gaur egun, bestearekiko, beste kulturarekiko jakin-nahia", gehitu zuen Zubizarretak.



02 DAGOENAKO 124 LIBURU ITZULI DIRA

Literatura Unibertsala izeneko bildumaren baitan, guztira, 124 lan itzuli dira, azkenak arestian aipatu ditugun Yasunari Kawabataren eta Nagib Mahfuzenak. 1989az geroztik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearekin (EIZIE) sinatutako akordioari esker, urtean-urtean bilduma handituz joan da eta jadanik zerrenda oso handia egiten ari denez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren web orritik izenburu guztiak kontsultatzeko aukera egokitu da. Halaber, beste hainbat informazio eskuratzeko aukera ere bada, beste batzuen artean, zer argitaratu den, noren itzulpenak egin diren, nor itzuli dituen lanak eta erreferentzia interesgarriak, liburu horiei egindako kritikak, eta idazleen lanei egindako erreferentzia zuzenak zein zeharkakoak.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística